

DESGAITASUNA DUTEN PERTSONEN ELKARTEENTZAKO DIRULAGUNTZAK

DATU PERTSONALEN BABESARI BURUZKO INFORMAZIOA

EPIGRAFEA	OINARRIZKO INFORMAZIOA	INFORMAZIO ZEHAZTUA
Arduraduna	Autonomia Pertsonala Sustatzeko Zuzendaritza Nagusia	Autonomia Pertsonala Sustatzeko Zuzendaritza Nagusia, Ugaskobidea 3 bis, 48014 Bilbo
Datuak babesteko ordezkaria		Lege Aholkularitza, Informazioaren Segurtasuna eta Datu Babesa Bideratzeko Ataleko burua, Kale Nagusia 25, 48009 Bilbo.
Xedea	Desgaitasuna duten pertsonentzako Bizkaiko elkarteentzako dirulaguntzak kudeatzea, beren autonomia pertsonala, gizarteko integrazioa eta partaidetza sustatzera bideratutako jarduerak bultzatzeko.	<p>Emandako datuak beharrezkoak dira desgaitasuna duten pertsonentzako Bizkaiko elkarteentzako dirulaguntzak kudeatzeko, beren autonomia pertsonala, gizarteko integrazioa eta partaidetza sustatzera bideratutako jarduerak bultzatu daitezten.</p> <p>Ez da hartuko zure datuetan oinarritutako erabaki automatizaturik, eta zure datuak ez dira erabiliko zuri buruzko profilik egiteko.</p>
Legitimazioa		<p>Zure datuak honako manu hauetan jasotako botere publikoen eskumenak baliatuz tratatuko dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> 3/1979 Lege Organikoa, abenduaren 18koa, Euskal Herriaren Autonomia Estatuarena. 27/1983 Legea, azaroaren 25koa, Autonomia-Elkarte Osorako Erakundeen eta bertako Kondaira-Lurraldeetako Foruzko Ihardutze-Erakundeen arteko Harremani buruzkoa. 38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Diru-laguntzei buruzkoa. 12/2008 Legea, abenduaren 5koa, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa. 1/2013 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 29koa, desgaitasunen bat duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren testu bategina onesten duena. Aplikatu beharrekota eta indarrean den beste edozein araudi. <p>Eskabidea izapidetuta, baimena ematen duzu beste iturri batzuetara sar gaitezen, indarrean dagoen araudiarekin bat, xede hauetarako: beste administrazio batzuek egindako edo haiei lehenago aurkeztutako datuak eta agiriak ez aurkezteko duzun eskubidea bermatzeko, zure nortasuna eta emandako datuen benetakotasuna egiaztatzeko, bai eta araudiak eskatutako baldintzak eta betebeharrak betetzen direla egiaztatzeko ere.</p> <p>Eskatutako datuak emateari eta sarbide horiek baimentzeari uko egiteak ezinezko egingo du zure eskaera izapidetzea.</p>
Datuak gordetzea		Zure datuak aipatutako xederako beharrezkoak diren bitartean gordeko dira, eta, xedea amaituta, nahitaez bete behar diren lege edo arauk ezarritako betebeharrak eta erantzukizunak betetzeko legez ezarritako epeetan zehar, edo Bizkaiko Foru Aldundiari hala eskatzen zaionean zuzenbidearekin bat eskumena duen agintaritza aginduz.
Datuen hartzaileak		<p>Datu pertsonalak legezko betebeharrak batek aginduta edo baimena ematen duzunean baino ez dira lagako.</p> <p>Ez da aurrez ikusten hirugarren herrialde batzuetara edo nazioarteko erakundeetara datu-transferentziarik egitea.</p>



EPIGRAFEA	OINARRIZKO INFORMAZIOA	INFORMAZIO ZEHAZTUA
Eskubideak	Zure datuetan sartu, datuok zuzendu edo ezabatzeko eskubidea edo datuen tratamendua mugatu edo tratamendu hori aurkaratzeko eskubideak. Horretarako, idazki bat bidali beharko duzu Lege Aholkularitza, Informazioaren Segurtasuna eta Datu Babesa Bideratzeko Atalera.	<p>Tratamenduaren arduradunaren aurrean balia dezakezu zure datuetan sartu, datuok zuzendu, aurkaratu, ezabatu edo haien tratamendua mugatzeko eskubidea, idazki bat bidalita Lege Aholkularitza, Informazioaren Segurtasuna eta Datu Babesa Bideratzeko Atalari. Leku hauetan aurkez dezakezu idazkia:</p> <ul style="list-style-type: none">• Laguntza – Bizkaiko Foru Aldundiko Herritarrenganako Laguntza Bideratzeko Bulegoan, Diputazio kalea 7, beheko solairua, 48009 Bilbo.• Bizkaiko Foru Aldundiko sailetako erregistroetan eta eskualdeetako bulegoetan. (Helbideak hemen kontsulta ditzakezu: http://web.bizkaia.eus/es/puntos-de-registro).• 39/2015 Legean adierazitako lekuetan. <p>Eskubide horietakoren bat baliatzeko aukera mugatu egin daiteke bateraezina denean botere publikoen jardunarekin edo aplikagarria den araudiaren arabera legezko betebeharrak betetzearekin.</p> <p>Horrez gainera, interesdunak eskubidea du dagokion kontrol-agintaritzari erreklamazioa jartzeko (hau da, Datuak Babesteko Euskal Bulegoari).</p>
Interesdunak		<p>Dirulaguntza eskatzen duten erakundeetako titularrak, ordezkariak eta harremanetarako pertsonak, bai eta dirulaguntzaren xede diren proiektuetarako kontratatu eta azpikontratatu direnak eta lankidetzan aritzen direnak ere.</p> <p>Tratamendu horri dagokionez, ez dira interesduntzat joko diruz lagundutako jardueretan parte hartzen duten pertsonak.</p>
Datuen kategoria	Identifikaziokoak, enpleguak eta betebeharrak sozialak eta zerga-betebeharrak egunean daudela egiaztatzeak.	<p>Ezarrirako legezko mugen barruan eskuratu ahal izango dira interesdunen identifikazioko, enpleguak eta betebeharrak sozialak eta zerga-betebeharrak egunean daudela egiaztatzeak datuak.</p> <p>Ez dira jasoko diruz lagundutako jardueran parte hartzen duten pertsonen datuak, eta datu horien tratamenduaren erantzule bakarra erakunde antolatzailea izango da.</p>
Jatorria	Interesduna edo haren ordezkaria, eta beste administrazio, erakunde, erregistro edo entitate publiko edo pribatu batzuk, legeak ezartzen dituen mugen barruan.	<p>Datuak ezarrirako legezko mugen barruan eskuratu ahal izango dira, iturri hauen bitartez:</p> <ul style="list-style-type: none">• Interesduna edo haren ordezkaria.• Poliziaren Zuzendaritza Nagusia.• Datu-kategoria horiek dituen beste edozein administrazio, erakunde, erregistro, erakunde publiko edo pribatu, ezarrirako legezko mugen barruan.
Segurtasunaren arloko neurri teknikoak eta antolaketa-neurriak		<p>Informazio-sistemen kategorizazioa eta segurtasun-neurrien aplikazioa, Administrazio Elektronikoaren esparruan Segurtasunerako Eskema Nazionala arautzen duen urtarrilaren 8ko 2013/2010 Errege Dekretuarekin bat.</p>
Informazio zehatza	https://www.ebizkaia.eus/eu/izapideen-katalogoa dagokion prozeduran.	